

Hainbat euskaltegi bultzatuta eta EKBren koordinaziopean, Siadeco ikerketa etxeak helduen euskalduntzearen egungo egoerai buruzko azterketa orokorra egin du. Ikerketaren helburuak euskalduntze maila ezagutzea, behar linguistikoak identifikatzea, balorazioak jasotzea eta beharren aurreikuspenak egitea izan dira. Emaitzetan, berriz, zera agertzen da besteren artean: euskara batere ulertzen ez dutenen jaietsiera, euskaltegien funtzio osagarria eskolarekiko, euskaltegiei buruzko iritzi ona, motibazio mota afektiboa, ideologikoaren nagusitasuna, prebisio onak eta praktika optimizatu beharra.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA: ESKAINZA ETA ESKARIAREN EGOERA ETA ETORKIZUNERAKO AURREIKUSPENAK

Kike Amonarriz
Siadeco Ikerketa Taldeko kidea

AZTERKETAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK ETA DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK

Helduen euskalduntzeari buruzko azterketa hau, SIADECOren eskutik eta EKBk koordinatuta, ondoko euskaltegiek bultzaturik egin da: AEK, Bilbo Zaharra, Gabriel Aresti, Hitzez, IKA, Ilazki, Juan Mateo Zabala, Maizpide, Ulibarri eta Urrats.

Aztergai izan den unibertsoa, euskaraz ONGI hitz egiten ez duten pertsonen osatu dute. Aztertuko dugun multzo hau zentsu eta erroldetan bi azpimultzo nagusitan banatzen da: Ia-euskaldunak eta erdaldunak. Hala ere, praktikotasunez, unibertso osoari gagozkionean, «erdaldun» terminoa erabiliko dugu.

Azterketa honen helburuak, honako hauek izan dira:

- .20-39 urte bitarteko biztanleriaren euskalduntze maila ezagutzea.
- .Biztanleriaren segmento honen behar linguistikoak identifikatzea.
- .Euskaltegietan ikasi dutenen gaur egungo hizkuntz ezagupen-maila

eta ikasketa-prozesuari buruz egiten duten balorazioa.

.Euskaltegiei buruzko imajin soziala, hizkuntz mailako beharrak eta euskaltegietan matrikulatzeko aurreikuspenak ezagutzea.

Azterketaren unibertsoa, Euskal Herriko 20-39 urte bitarteko erdaldunek osatzen dute, alegia, euskaraz ongi mintzatzen ez diren pertsonak. Denera 708.931 pertsona.

Inkestaren konfidantza maila %95,5ekoa da, eta erru marjinala $\pm 1,8$ koa datu orokorrentzat eta $\pm 4,9$ koa hiriburu eta herrialdeentzat. Guztira, 2.849 inkesta egin dira.

Datuak lortzeko erabili zen metodoa ibilbide-sistemarena izan zen. Ausazko laginketaren bidez, udalerrri eta ibilbide batzuk aukeratu ziren inkestagile bakoitzak ibilbide bakoitzean 10 inkesta bete behar zituelarik, adin, sexu eta lan-egoera desberdinei zegozkien kuota batzuk errespetatuz.

Datuen irakurketa 3 maila geografikotan egin da: Euskal Herri osoari dagokion emaitzak, lurraldeka eta hiriburuka. Laburpen honetan, batez ere, Euskal Herri osoko emaitzak besterik ez ditugu aurkeztuko.

EUSKARAREN EZAGUPEN-MAILA

ULERMENARI DAGOKIONEZ

Euskaraz ongi hitz egiten ez duen 20-39 urte bitarteko populazioan hizkuntz mailaketa garbia dago. Elebidun pasibotzat jo genitzakeenak (ez dute ongi hitz egiten baina ongi ulertzen dute), Euskal Herriko populazio erdaldunaren ia bosten batera iristen dira (%18), eta une honetan gehiago dira (%43) nekez ulertzen dutela diotenak ezer ez dutela ulertzen diotenak baino (%39).

Datu hauetan, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eragina nabarmen daiteke. Zero ulermen mailako erdaldunen pisua murrizten ari da, nahiz eta oraindik adin-multzo hauetan gutxiengoa izan ulermen-maila altuetara iritsi direnak. Hala ere, garbi adierazi beharra dago, «nekez» ulertzen dutela dioten hizkuntz maila, ez dela batere homogeneoa.

MINTZAMENARI DAGOKIONEZ

Azterketa honetan ez dira sartzen euskaraz ongi mintzatzen direnak. Ikus dezagun hala ere, zenbatak aitortu duen euskaraz «nekez» hitzegiten dela.

20-39 urte bitarteko erdaldunen multzo zabal batek, nekez bada ere, zerbait hitzegiten omen du: bostetik bik. Aipatu berri dugun bezala ordea, hauen artean, gaitasun-mailak oso desberdinak dira, ondorengo galdere-tan ikusi ahal izango dugun bezala.

«Zero ulermen mailako erdaldunen pisua murrizten ari da, nahiz eta oraindik adin-multzo hauetan, gutxiengoa izan ulermen maila altuetara iritsi direnak»

**«Erdaldungo gazte-
heldua «zero
abiapuntutik»
ateratzen ari da,
oraindik ere gehiengoak
mintzamen mailan
inolako gaitasunik ez
badu ere»**

Hala ere, lehen galdera honek, urte hauetan, irakaskuntzari esker garatu-tako bilakaera kolektibo garrantzitsuaren berri ematen digu: erdaldungo gazte-heldua «zero abiapuntutik» ateratzen ari da, oraindik ere gehiengoak mintzamen-mailan inolako gaitasunik ez badu ere.

«Nekez» mintzatze hau beraz, ezin liteke ulertu, euskararen maila ertain modura, erabateko gaitasun ezan ez daudenen batuketa orokor modura baizik.

IRAKURMENARI/IDAZMENARI DAGOKIENEZ

Gertaera sozial berri baten aztarnak somatu dira bi gaitasun hauei dagokienez. Izan ere, euskararen irakaskuntza-prozesuaren eraginez, euskaraz ONGI HITZ EGIN EZ, baina ONGI IRAKURRI EDO/ETA IDATZI egiten omen duen multzo zabala sortu baita (20-39 urte bitarteko populazio erdaldunaren %12, irakurmenari dagokionez).

Multzo zabal honek, hedatzen ari den behar sozial berri bat azalarazi du: euskararen ikasketa-prozesua (haur nahiz helduena) mintzamenaren lanke-ta sakonagoaz indartu beharra, irakaskuntza-sistemaren barrutik nahiz kanpotik.

Kasu guztietan euskaraz ongi irakurtzen dutela diotenen portzentaiek bikoiztu egiten dituzte euskaraz ongi idazten dutela diotenenak.

EUSKARA-MAILA ETA ADIN MULTZOAK

	20-24	25-29	30-34	35-39
Ongi ulertu	22.5	21.6	16.3	13.3
Ongi hitz egin	50.5	42.6	40.3	38.2
Nekez hitz egin	51.4	43.0	36.5	32.7
Ongi irakurri	17.5	13.6	10.0	5.5
Ongi idatzi	9.5	6.0	6.4	3.3

Aurreikuspen guztien arabera, populazioaren euskara-maila gorantz joango da eta gero eta gutxiago izango dira euskararen ezagupenari dagokio-nez zero mailan aurkituko direnak. Gaur egun, 20-39 urte bitarteko popu-lazioaren ia hiru laurdenek adierazten dute zero puntu honetatik atereak direla.

Honek noski, eragin zuzena izango du helduen euskalduntzearen alorrean, hartuko dituen ikasleen abiapuntuko euskara-maila gero eta jasoagoa izan-go baita.

HELBURUAKEUSKARA-MAILARIDAGOKIONEZ

Galdera honen inguruan hiru multzo nagusi azaltzen zaizkigu.

.Helburutzat euskaraz ongi mintzatzera iristea edo tituluren bat lortzea (EGA) dutenak (%46).

.Euskararen inguruan inolako helbururik ez dutenak, eta ikasteko beharrik ez dutela edo nahikoa badakitela diotenak (%33).

.Helburu apalagoren bat aipatu dutenak eta ulertzera iristearekin konforme liratekeenak (%14).

Horietaz gain %7 batek ez du inolako helbururik aukeratu eta ez du erantzunik eman.

20-39 urte bitarteko erdaldunen erdiak, euskararen ezagupen-maila ona lortzea du helburu. Beste muturrean, heren batek hizkuntzaren hobekuntzari dagokionez ez duela inolako helbururik aitortu du esplizitoki. Azken multzo hau garrantzitsua da, sozialki euskararen inguruan inolako aurrerapausorik emateko prest ez dagoen multzo zabala dagoela adierazten baitigu, baita adin gazte-heldu hauetan ere.

TRANSMISIO-PROZESUA

20-39 urte bitarteko hamar erdaldunetatik bederatziren ama-hizkuntza bakarra erdara da (%91). Erdararekin batera edo bakarrik ama-hizkuntzat euskara dutenen proportzioa ez da hamarretik batera iristen (%7). Ama-hizkuntza bezala besteren bat izan dutenen proportzioa oso txikia da eta ez da %2ra iristen.

Gaur egungo erdaldunen artean jatorrizko euskaldunek duten pisua eta euskararen galeraren neurria ezagut ditzakegu. Erdaldunen artean, jatorriz euskaldunen proportziorik altuenak Iparraldean (%16) eta Gipuzkoa/Donostian (%11) aurkitzen dira. Ondoren datoz Bizkaia/Bilbo (%7) eta Nafarroa (%6). Iruñean eta Araba/Gasteizen multzo hau ez da %5era iristen.

Lehenik ikasitako hizkuntza eta ondorengo bilakaera linguistikoa gurtzatzen baditugu, 6 multzo hauek lortuko ditugu:

-Jatorriz erdaldunak, inoiz batere euskararik ikasi ez dutenak: 42.0

-Jatorriz erdaldunak, euskara zerbait ikasi baina orain hitzegiten batere ez dakitenak: 29.5

-Jatorriz erdaldunak, euskara ikasi eta orain hitzegiten zerbait dakitenak: 15.6

-Jatorriz erdaldunak, euskara ongi ikasi ondoren, maila galdu eta gaur egun zerbait hitzegiten dakitenak: 6.6

-Jatorriz euskaldunak, euskaraz hitzegiten zerbait dakitenak: 4.0

«Aurrikuspen guztien arabera, populazioaren euskara-maila gorantz joango da eta gero eta gutxiago izango dira euskararen ezagupenari dagokionez zero mailan aurkituko direnak. Gaur egun, 20-39 urte bitarteko populazioaren ia hiru laurdenek adierazten dute zero puntu honetatik atereak direla»

«20-39 urte bitarteko hamar erdaldunetatik bederatziren ama-hizkuntza bakarra erdara da (%91). Erdararekin batera edo bakarrik ama-hizkuntzat euskara dutenen proportzioa ez da hamarretik batera iristen (%7)»

-Jatorriz euskaldunak, euskaraz batere ez dakitenak: 2.0

Proporzio hauek guztiek, ezagupen-mailari buruz jasotako datuak bere neurri zehatzagora ekartzeko balio dute. Datu hauen argitan bai esan genezake, Euskal Herriko 20-39 urte bitarteko erdaldunen artean eta mintzamenari dagokionez, esaldi simple batzuk artikulatzeko gai direnak ez direla laurdena baino gehiago (eta ez %41ean, hizkuntz mailaketari buruzko lehen galderaren erantzunean adierazten zuten bezala).

EUSKARAREKIKO JARRERAK

Oro har, jarrera hauek bildu ditugu:

.Ia herena, oso aldekoa da (%32)

.Ia erdia, aldekoa (%44)

.Laurdena inguru indiferenteak (%23)

.Salbuespen hutsa dira aurka posizionatzen direnak (%1)

20-40 urte bitarteko erdaldunen jarrera nagusia baikorra da euskararekiko; beren burua euskararen aldekotzat jotzen dute.

Inkestaren testuingurua kontutan izanik normala da jende gutxi posizionatzea zuzenki aurka. Indiferente agertu den multzoaren jarrerak berriz, euskararekiko nahikoa edo oso hotzak izan dira inkestan zehar.

Indiferenteak eta aurkakoak honela banatzen dira adin-multzoen arabera:

20-24	25-29	30-34	35-39
26.4	21.8	21.7	24.8

Minoria izan arren, badirudi indiferenteen proportzioa pittin bat handitu egin dela multzorik gazteenean.

AZTERTUTAKO BIZTANLERIA ETA EUSKALTEGIAK

MATRIKULATUENKOPURUA

Eskolatik kanpo ea euskara ikasten inoiz saiatu ote ziren, eta saiatu baldin baziren zein erataraz, galdetu zitzairen lehendabizi inkestatuei.

20-39 urte bitarteko biztanleria erdaldun gazte-helduaren multzo zabal bat aritu da bere euskara maila hobetzen eskolatik kanpo (%41). Horieta-tik, gehiengoa (hiru laurden) euskaltegi-barnetegietatik pasa da eta beste laurdenak bestelako bideak erabili ditu eskolatik kanpo, bere euskara-

maila hobetzeko.

Lehen datu honek helduen euskalduntze alorrak Euskal Herriko gizartean hartzen duen dimentsio sozial zabala azaltzen digu. Adin horietako pertsonen artean ia herena matrikulatu da noizbait euskaltegiren batean: 215.000 pertsona inguru.

Adin-multzoen arabera honela banatzen dira datuak:

	20-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Guztira
Ed/Ee	0.1	0.1	0.3	0.9	0.3
Ez, inoiz ez	55.9	99.7	57.5	62.1	58.8
Bai, euskal barne.	33.2	30.6	34.4	23.5	30.4
Bai, beste erak.	10.8	9.7	7.8	13.5	10.5
Guztira	26.3	24.0	24.3	25.4	100.0

«20-40 urte bitarteko erdaldunen jarrera nagusia baikorra da euskararekiko; beren burua euskararen aldekotzat jotzen dute»

Euskaltegietan matrikulatu direnen portzentairik baxuena 35-39 urte bitartekoetan ageri da (%24). 34 urtetik beherakoen artean, herenaren inguruan kokatzen dira noizpait matrikulatuak 25-29 urte bitartekoetan, proportzio baxuagoan izan arren (%31).

EUSKALTEGIETAN INOIZ IBILIEZ DIRENAK

Euskaltegietan inoiz matrikulatu ez diren 20-39 urte bitarteko erdaldunen arrazoiak ezagutu nahi izan ditugu. Planteatu diren arrazoiaren artean, hiru izan dira nabarmendu direnak.

- .Tendría que dejar otras cosas (%32)
- .No lo necesito (%17)
- .No me interesa (%16)
- .Es muy difícil (%11)

«Ez zait interesatzen/ez dut behar» erantzun dutenen multzoak (inoiz matrikulatzeko oztopo ideologiko gehien aurkez dezakeena), batez beste herena hartzen du. Arrazoi ekonomikoek ez dute apenas pisurik euskalduntze-prozesuan ez sartzeko mementuan. %2k besterik ez ditu aipatzen. Azpimarratzekoa da bestalde «por razones políticas» erantzun duenik ez dela egon praktikan (%0.2).

Matrikulatzeko batere interesik azaltzen ez dutenak alde batera utzita, denbora da euskaltegietan ez matrikulatzeko dagoen arrazoirik nagusiena. Denbora-faktorea funtsezkoa bilakatzen da euskaltegiekiko harremanetan.

«20-39 urte bitarteko biztanleria erdaldun gazte-helduaren multzo zabal bat aritu da bere euskara maila hobetzen eskolatik kanpo (%41). Horietatik, gehiengoa (hiru laurden) euskaltegi-barnetegietatik pasa da»

Adin-multzo desberdinak konparatuta, «ez dutela behar» diotenak gehiago dira 30 urtetik gorakoen artean (%20 inguru) 30 urtez azpikoen artean baino (%14 inguru) eta astirik ez dutenen portzentaiak handiagoak dira 30 urtez azpikoen artean (%36).

EUSKARA IKASTEKO ARRAZOIAK

Erdaldun asko hurbildu da euskara ikastera. Zergatik burutu dute ordea, ahalegin hori?. Arrazoi hauen berri jakin nahian, hainbat arrazoi eskaini zitzaizkien inkestatuei, euskara ikasten hasteko mementuan beraiengan izan zuten garrantzia 0tik 10era balora zezaten. Herrialde eta hiriburu desberdinetan jasotako balorazioak, nahikoa bat datoz batez beste jasotako balorazioekin.

Para aprobar la asignatura	1.9
Porque es la lengua de nuestro pueblo	7.3
Porque no me siento cómodo/a sin saber euskera	5.5
Por los hijos/as (existentes o posibles)	5.3
Me lo exigen en el trabajo, me ayudará a encontrar algún trabajo	4.4
Para comunicarme mejor con los amigos, vecinos y otros euskaldunes	6.3
Porque quiero, porque el euskera me gusta	7.8

Motibazioak honela banatzen dira:

- Motibazio afektibo-ideologikoak dira nagusi: hala nahi dudalako, maiztatzen dudalako, gure herriko hizkuntza delako.
- Motibazio komunikatzaileek ere badute pisua: euskaldunekin hobeto komunikatzeko, ez naiz eroso sentitzen, seme-alabengatik.
- Garrantzi gutxien motibazio pragmatikoeak dute: lanean exijitu, lana aurkitzeko, asignatura aprobatzeko.

Nafarroan eta Iparraldean euskaltegietan matrikulatutakoak gutxiago izan arren, motibazio afektibo-ideologikoetan beste guztiak baino askoz ere beroago azaltzen dira. Oro har, Gipuzkoan, Nafarroa eta Iparraldean arrazoi komunikatzaileek beste herrialdeetan baino pisu handixeago hartzen dute.

Motibazio pragmatikoen pisurik txikiena herrialde eta hiribururik erdaldunenetan jaso da (Nafarroa, Iruñea eta Gasteiz) eta altuena berriz, Donostia eta Gipuzkoan. Zonalde soziolinguistikoa zenbat eta euskaldunagoa izan, motibazio afektibo-ideologikoak nagusiak izan arren, pittin bat epeldu egiten dira eta pisua irabazten dute motibazio pragmatikoeak.

Adin-multzo bakoitzak arrazoi bakoitzari eman dion puntuaketa azertu-

ta ondorio hauek atera genitzake:

- Adin gazteenetan (20-24 urte) motibazio afektibo-ideologikoeak, nahiz eta garrantzitsuenak izan pisua galdu egiten dute eta pragmatikoak al-diz indartu egiten dira nabarmen.
- Seme-alabengatik ikasteak 30 urtetik gorakoan artean indarra hartzen du.
- Arrazoi komunikatiboetan ez dago alde handiegirik adin-multzo desberdinen artean.

«Matrikulatzeko batere interesik azaltzen ez dutenak alde batera utzita, denbora da euskaltegietan ez matrikulatzeko dagoen arrazoirik nagusiena»

EUSKALTEGIEI BURUZKO IRITZIA ETA MATRIKULAZIORAKO AURREIKUSPENAK

20-39 urte bitarteko erdaldunen gehiengoak ezagutzen ditu euskaltegiak, nahiz eta laurdena pasatxok ez dituela ezagutzen erantzun (%28). Bestalde, beste %10 bat ez da ausartu balorazio zehatzik ematera. Erdaldun horien ia bi herenek aldiz (%62) balorazio bat emateko moduko ezagupen-maila dute. Proporzio hau, euskaltegien fenomenoak Euskal Herrian zehar lortu duen ezarpen-mailaren isla da.

Euskaltegiei buruzko balorazioen bat eman duten 20-39 urte bitarteko erdaldunen pertzeptzioa oso positiboa da: Batez besteko balorazioa: 7.7. Puntuaketa honek, euskaltegiek duten imajin sozial ona adierazten du. Erdaldunen kasuan ere, ez dirudi, urteotako ihardunak beren imajina erre edo gastatu duenik.

ETORKIZUNERAKO ASMOAK

Ikerketa honen helbururik garrantzitsuenetako bat, 20-39 bitarteko erdaldunek, etorkizunari begira, euskaltegietan matrikulatzeko dituzten asmoen inguruko informazio zehatza biltzea zen. Euskaltegietan matrikulatzeko interesari buruz galdetuta, honako erantzun hauek eman zituzten:

Interesa	Mailaketa	%
Ez	Euskaraz nahikoa badakit	0.8
	Ez naiz matrikulatuko	14.4
	Nahikoa zait eskolakoarekin	0.8
Beharbada	Zaila ikusten dut	23.2
Beharbada	Beharra sortzen bazait	21.9
Bai	Nahikoa interesaturik	22.9
	Oso interesaturik	8.7
Besterik/E.E.		7.2

«Nafarroan eta Iparraldean euskaltegietan matrikulatutakoak gutxiago izan arren, motibazio afektibo-ideologikoetan beste guztiak baino askoz ere beroago azaltzen dira»

Hiru multzo nagusi azaltzen dira beraz:

- a) Interesik ez dutenak: %16
- b) Zalantzan daudenak: %45
- c) Interesatuak: %32

Erdaldungo osoa erreferentziatzen harturik bestalde, %9 izango lirateke interes-maila altua azaldu dutenak.

Ez matrikulatzeko erabaki finkoa agertu dutenak hala ere ez dira asko (%10-21 artean hiriburu eta herrialde desberdinetan, agertutako interes-mailaren arabera). Kopuru hauek garbi adierazten dute beraz, helduen eskalduntze-prozesuak lan-esparru eskerga izaten jarraituko duela, hurrengo urteetan.

Adin-multzoen arabera, zenbat eta gazteagoak, orduan eta interes-maila handiagoa euskaltegietan matrikulatzeko.

	20-24	25-29	30-34	35-39
Interesatuak	39.5	33.4	30.5	22.7

Bestalde, interesa izan arren matrikulatu gabe egoteko aipatzen den ia arrazoi bakarra denbora faltarena da.

Hala ere, aipatu den bigarren arrazoia, euskaltegiak garestiak izatea izan da. Batez ere Bilbon (-%14-) eta gazteen artean (%6, 20-24 urte bitartekoetan eta %9, 25-29 urte bitartekoetan). Gutxi izan arren, bada beraz arrazoi ekonomikoak aipatzen dituen multzo bat, kontutan hartu beharrekoa.

Aukeran eskaintako bestelako arrazoi hauek ez dute inolako garrantzirik matrikulatuta ez egoteko garaian: gramatika gehiegi ematea, euskaltegietako giroa edo metodo pedagogikoak. Guztira ez dira erantzunen %1era iristen.

IKASTARO DESBERDINEKIKO INTERES-MAILA

Euskaltegietan matrikulatzeko interesa izan, eta gaur egun matrikulatuta ez daudenei, ikastaro-mota desberdinen zerrenda aurkeztu zitzaizen.

Jasotako erantzunek begibistan jartzen diguten lehen errealitatea honako hau da: euskara ikasteko interesa duten erdaldun heldu-gazteek ongi eza-gutzen dute ikastaroen eskaintza eta ikasketa-prozesua seriotan hartzen dute; oso gutxik adierazi dute zalantza eta ez dira asko izan, oinarriko euskara ikasteko interesa besterik agertu ez dutenak.

Interesatuta dauden pertsonen, euskaraz ongi ikasi nahi dute eta badakite honetarako zein ikastaro-mota aukeratu. Hori dela-eta bihurtzen da denbora ez matrikulatzeko edo ikasketa-prozesua eteteko faktorerik ga-

rrantzitsuena. Onarpen handieneko ikastaroak ohikoak dira: 2 ordu egu-
nero. Interesa agertu dutenen artean erdiek baino gehiagok ikastaro-mota
hau lehenetsi dute.

Oso multzo garrantzitsua eta kuantitatiboki zabala osatzen dute bestal-
de, ikastaro trinkoen edo intentsitate handiko (5 orduko) ikastaroen alde-
ko joera agertu dutenek: %20.

DATORREN IKASTURTEAN MATRIKULATZEKO INTERESA

Inkestatuak agertutako interes orokorra zehaztu nahian, ea hurrengo ur-
tean matrikulatzeko asmorik ba ote zuten galdetu zitzairen. Normala den
bezala, aukera teorikoa mugatzean eta baldintza jakin batzuren barnean
kokatzerakoan erantzun positiboen proportzioa murriztu egin da, oso
nabarmena izaten jarraitzen duen arren.

Asmo teorikoen eta praktikoen arteko aldea egiazkoagoa izan zedin, bi
galderak elkarrengandik nahikoa aparte ezarri ziren.

EUSKALTEGIETAN MATRIKULATU	Euskal Herria
(Oso) interesatuta	31.6
Datorren urterako asmoa	13.7
Aurten matrikulatuak	6.1

Berriro ere, adina faktore giltzarri suertatzen da. Zenbat eta gazteagoak,
orduan eta sendoagoa datorren urtean matrikulatzeko asmoa.

	20-24	25-29	30-34	35-39
Datorren urtean	18.7	15.9	12.1	7.9

EUSKALTEGIAK AUKERATZEKO ARRAZOIAK

Ikasle hauei, euskaltegi jakin batean matrikulatzera bultzatu zituzten arra-
zoiak zeintzuk izan ziren identifikatzeko eskatu zitzaizenean, honako hauek
izan ziren aipatutakoak:

- .Hurbiltasun geografikoa: %46.6
- .Berari buruz jasotako erreferentzia onak: %13.9
- .Norberaren beharretara egokitutako eskaintza (orduak, mailak...):
%13.1
- .Lagunek/senitartekoek euskaltegi horretan ikasi dute: %7.0

**«Zonalde
soziolinguistikoa
zenbat eta
euskaldunagoa izan,
motibazio afektibo-
ideologikoak nagusiak
izan arren, pittin bat
epeldu egiten dira eta
pisua irabazten dute
motibazio
pragmatikoek»**

«Onarpen haundieneko ikastaroak ohikoak dira: 2 ordu egunero. Interesa agertu dutenen artean erdiek baino gehiagok ikastaro-mota hau lehenetsi dute»

.Hitzegiten ikasteko egokiena delako: %6.7

Bestelako arrazoiek (gramatika ikasteko egokiena izatea, kalitatea, edo merkeena izatea) oso portzentaia baxuak jasotzen dituzte; guztira, %7.9.

EUSKALTEGIEN INGURUKO HAINBAT ASPEKTUREN BALORAZIOA

Euskaltegietan inoiz matrikulatuta egondako pertsona hauei, euskaltegi-tako hainbat aspekturi buruzko balorazioa eman zezaten eskatu zitzairen. Ondorengo taulan, aspektu horiek puntuaketa handienetik txikienera ordenatu ditugu.

Ambiente de la clase	— — — — —	8.2
Ubicación	— — — — —	7.9
Calidad de los profesores	— — — — —	7.7
Tiempo dedicado a la práctica oral	— —	7.6
Funcionamiento del Euskaltegi	— — —	7.3
Ritmo del proceso de aprendizaje	— — —	7.1
Importancia contenidos gramaticales	— —	6.8
Infraestructura/equipamiento técnico	— —	6.1
Contenidos culturales impartidos	— — —	5.5
Actividades complementarias	— — — —	5.5

Euskaltegietatik pasa diren ikasleek euskaltegiei buruzko oso iritzi positiboa dute eta gehien baloratzen duten aspektua gelako giroa da. Horrekin batera euskaltegiaren kokapena eta irakasleak. Euskaltegietan matrikulatzeko funtsezkoak izan daitezkeen elementuak beraz, oso ongi baloratuta daude.

Ikasketa-prozesuarekin loturiko beste aspektuek ere oso balorazio positiboak jasotzen dituzte: mintzamenari eskainitako denbora, euskaltegien funtzionamendua eta ikasketa-erritmoa, gehien baloratutako aspektuen artean daude, eta guztietan 7tik gorako puntuaketa lortzen da.

Baloraziorik baxuenak berriz, aspektu materialekin eta ikasketa-prozesuaren testuinguruarekin eta errefortzu-sistemekin dute zerikusia:

Euskararen ikasketa-prozesua ez da baldintza fisiko egokienetan eta bitartekorik egokienekin garatzen oro har.

Kultur edukien lanketan hutsuneak somatzen dira.

Aurreko puntuarekin batera, baloraziorik baxuena jaso duen aspektua ekintza osagarriena izan da.

Balorazio orokor hau, azterketa honetan jasotako punturik azpimarragarrienetako bat da: euskaltegietatik pasatako ikasleek euskaltegiei buruzko iritzi eta oroimen positiboa dute. Zalantzarik gabe, aurrera begira euskaltegiek erabili beharreko kapitala da hau.

HASERA ETA AMAIERAKO MAILAK

Noizbait euskaltegiaren batean ibili eta gaur egun matrikulatuta ez dauden pertsonen, ea zein urratsetan bukatu zituzten ikasketak galdetu zitzaizkien eta ea beraien ustez zein den gaur egun duten maila. Multzo honek unibertso osoaren %24 hartzen du eta noizbait matrikulatuta egon direnen %78.

Azterketa honek eman duen aspekturik kezkarrienetako bat, ikasketa-prozesua utzi ondoren, euskara-mailan gertatzen den galera orokortua da. Euskaltegietatik pasa diren 20-39 urte bitarteko erdaldun gehienek euskara mailan atzera egin dute euskaltegietatik atera ondoren. Ikasketa-prozesuan lortutako maila galdu egin dute.

Mailak bilduz datuak honela geratuko lirarteke:

	Amaierako maila	Oraingo maila
Behe urratsak (1-4)	58.8	70.2
Urrats ertainak (5-8)	32.7	21.3
Goi urratsak (9-EGA)	5.6	2.0
Ed/ee	2.9	6.4

Noizbait matrikulatuta egon direnen artean %72k bere euskara mailan atzera egin duela aitortu du. Atzerapen hori esplikatzen, batez ere ingurune erdaldunaren eragina aipatzen da. Beraz, ikasle horiek somatzen duten hutsunerik nagusienetako bat euskaltegitik atera ondorengo erabilera-esparruena da. Garrantzi berezia har dezakete, beraz, «eskolorduz kanpoko iharduera eta erabilera-esparruek». Ezinbestekoa gertatzen da beraz, euskaltegietan lortutako maila gizarteratzeko mekanismoak martxan jartzea.

Datuek adierazten zuten bezala, gutxiago izan dira euskaltegietan lortutako mailari eutsi diotenak edo berau hobetu dutenak. Noizbait matrikulatuta egon direnen artean %33. (Badirudi beraz %5 batek bi prozesuak bizi izan dituela; galerarena eta eutsi edo hobetzearena). Euskara-mailari eutsi dioten erdiek ingurune hurbilarekin zerikusia duten esparruak aipatzen dituzte batez ere (lagunak eta familia).

IKASTARO HORIEN BIDEZ LORTU NAHI ZEN HELBURUA ETA HELBURUEN LORTZE-MAILA

«Euskaltegietatik pasa diren ikasleek euskaltegiei buruzko oso iritzi positiboa dute eta gehien baloratzen duten aspektua gelako giroa da. Horrekin batera euskaltegiaren kokapena eta irakasleak. Euskaltegietan matrikulatzeko funtsezkoak izan daitezkeen elementuak beraz, oso ongi baloratuta daude»

«Azterketa honek eman duen aspekturik kezagarrienetako bat, ikasketa-prozesua utzi ondoren, euskara-mailan gertatzen den galera orokortua da. Euskaltegietatik pasa diren 20-39 urte bitarteko erdaldun gehienek euskara mailan atzera egin dute euskaltegietatik atera ondoren»

Noizbait euskaltegieta ibili eta gaur egun matrikulatuta ez dauden pertsona horiei zer helburu lortu nahi zuten galdetu zitzairen. Izan ere, euskalduntze prozesuaren berezko helburua hizkuntz trebetasun desberdinetan ongi moldatzera iristea baldin bada ere, gerta baitaiteke hainbat pertsonak bestelako helburuak izatea.

Euskal Herrian, oro har, eta herrialde eta hiriburu guztietan, helburu bat nagusitzen da beste guztien gainetik: euskaraz ongi hitzegiten ikastea (%64).

Helburu xumeak dituztenek (oinarrizko ezagupenak lortzea edo elkarrizketak ulertzea) %17aren inguruan kokatzen dira, Gipuzkoan %21 izatera heltzen direlarik.

Tituluren bat (EGA) lortu nahi dutenak ez dira asko (%7) baina 20-24 urte bitartekoetan hartzen dute pisurik nabarmenena (%10). Beste helbururen bat lortu nahi dutenak ere (ezagupen gramatikaletan sakontzea edo kultura orokorra aberastu eta inguruan integratzea) ez dira asko: %4 eta %5.

Helburuak horiek izan arren, oso garrantzitsua da helburuak betetzat jotzen diren ala ez jakitea. Erantzunak honela banatzen dira:

Bai, nahi nuena baino gehiago	4.0
Bai, nahi nuena lortu nuen	26.8
Ez nuen lortu nahi nuena	67.1
Ed/ee	2.1

Datu hauek helduen euskararen irakaskuntzaren aspektu kezagarri bat azalarazi digute: euskaltegietatik pasa diren 20-39 urte bitarteko erdaldunen artean, gehiengoak (%67) ez du lortu irakaskuntza-prozesu honen bidez lortu nahi zuen maila. Herena besterik ez da izan beraz, bere helburua lortuzat eman duena (%31) eta beti ere kontutan izanik unibertso honetan biltzen direnek ez dutela mintzamen-mailarik lortu.

Bai objetiboki (unibertso hau osatzen dutenek ez dute mintzamen-maila egokirik lortu), bai subjektiboki (pertsona horiek ez dute lortu nahi zuten maila), helduen euskalduntzearen arrakasta-maila nahikoa baxutzat jo beharko genuke.

Badirudi (laginak txikiak izan arren), helburua erdietsi dutenen proportzioak altuxeagoak direla Gipuzkoa/Donostian (%35) eta adin-multzoz desberdinen artean gazteenek azaltzen dute proportziorik altuena (%32, 20-24 urte bitartekoetan).

IKASKETA-PROZESUA ETETEKO ARRAZOIAK

Ikasle hauei euskararen ikasketa-prozesua eteteko izan dituzten arrazoiez

galdetu zitzaien. Arrazoi horiek bi multzo nagusitan bereiztu genituen:

- a). Ikasketa-prozesuarekin zerikusirik ez duten arrazoiak.
- b). Ikasketa-prozesuarekin zerikusia duten arrazoiak.

Denbora falta da erantzun dutenen artean gehien aipatzen den arrazoia. Honekin batera (eta aurrekoaren zehaztapen modura har daiteke) baita lana ere.

Gogo falta adierazi dutenak ez dira asko baina multzo esanguratsua osatzen dute, batez ere Bizkaia/Bilbon (%15-16) eta Donostian (%11). Arrazoi honek zerikusia izan dezake helburuak ez lortu izanarekin.

Ikasketa-prozesuarekin zerikusia duten arrazoiak ez dira apenas aipatzen (denak batera hartuta ere inon ez dira jasotako erantzunen %10era iristen).

Adin-multzo desberdinen artean alde hauek azpimarratuko genituzke:

Denbora falta aipatzen dutenak batez ere gazteenen artean ageri da: %63, 20-24 urte bitartekoetan eta %45-41, 25-29 urte bitartekoetan.

Aitzitik, lana aipatzen dutenak gutxi dira gazteenen artean (%6) eta laurdena inguru hortik gorakoetan.

EUSKARAREN ERABILPENA

Atal honetan, pertsona hauek euskararekin duten harremana non eta nola gertatzen den aztertu dugu. Horretarako, hainbat esparrutan euskara zein neurritaraino ENTZUTEN duten galdetu zaie.

Lehen ondorio nagusi eta orokorra honako hau izan da: erdaldun gaztehelduen gehiengoak oso ukipen sozial eskasa du euskararekin. Bestalde, ondorio hauek ere atera daitezke datu hauetatik:

.Euskal Herriko 20-39 urte bitarteko erdaldunek, euskara batez ere haurrei eta beren lagunei entzuten diete. Eta hala ere, erantzunen bat eman dutenen artean, bost erdaldunetatik batek besterik ez du esaten maiz edo ia beti euskaraz entzuten dienik.

.Kalea da euskara gehien entzuten den hurrengo esparrua. Erdaldunen %13k euskaraz maiz edo ia beti entzuten duela erantzun du. %28k berriz, ez duela sekula euskararik entzuten kalean erantzun du.

.Erantzuna eman dutenen artean, lanaren esparrua bi herenek besterik aipatu ez badute ere, berau litzateke 20-39 urte bitarteko erdaldunek euskara gehien entzuten duten hirugarren esparrua. Izan ere, erantzunen bat eman dutenen artean %14k maiz edo ia beti entzuten duela erantzun baitu, sekula entzuten ez dutenen proportzioa %56ra igo-tzen bada ere.

.Beste esparruetan euskara maiz edo ia beti entzuten dutenen kopu-

«Euskaltegietatik pasa diren 20-39 urte bitarteko erdaldunen artean, gehiengoak (%67) ez du lortu, irakaskuntza-prozesu honen bidez lortu nahi zuen maila. Herena besterik ez da izan beraz, bere helburua lortutzat eman duena (%31) eta beti ere kontutan izanik, unibertso honetan biltzen direnek ez dutela mintzamen-mailarik lortu»

**«Lehen ondorio nagusi
eta orokorra honako
hau izan da: erdaldun
gazte-helduen
gehiengoak oso ukipen
sozial eskasa du
euskararekin»**

ria %6-9 artean kokatzen da.

Bestalde, inkestatuei ea egunean zehar zenbat denboraz entzuten zuten euskara galdetu zitzaien, eta emaitzek ez dute zalantzarako biderik eskaintzen:

.Erdiek baino gehiagok oso noizik eta behin entzuten omen dute («esporádicamente, alguna que otra vez»), eta multzo garrantzitsu batek gainera ez du inoiz entzuten. Denetara multzo zabal honek erdaldun hauen %70 hartzen du.

.Euskararekin nolabaiteko harremana dutenak, beraz, %30 dira.

*%18k denboraren laurdena baino gutxiago entzuten du euskaraz (oso denbora gutxi, beraz).

*Euskararekin ukipen-maila sakon samarra dutenak, 20-39 urte bitarteko erdaldunen %12 dira.

Datuak herrialdeka eta hiriburuka banatuz gero ordea, alde handi samarrak topa daitezke. Euskararekiko ukipenik sakonena Gipuzkoan gertatzen da (%23k denboraren laurdena baino gehiago). Nafarroan (%11) eta Bizkaian (%10) hala ere, Araban (%5) eta Iparraldean (%7) baino altuagoa da. Hiriburuetan euskararen presentzia minimoa azaltzen duen bakarra Donostia da (euskara denboraren laurdenetik gora entzuten dutenak %17). Azkenik, beste hiruren artean ez dago alde azpimarragarririk. Gasteizen, Bilbon eta Iruñean %80 inguru dira euskararekiko ukipen-maila minimoa dutenak (oso noizean behin entzuten dute edo ez dute batere entzuten).

Ukipen-maila eskas honek garbi adierazten digu Euskal Herriko hiriburuetak erdaldungoaren multzorik nagusia euskal mundutik oso urruti bizi dela.

Aipatu dugun bezala, irakaskuntza-sistematik kanpo euskararekiko ukipena handiagotzen duten esparruak haurrak, familia eta lana direnez, zaharrenek ukipen handiagoa dute euskararekin gazteenek baino.

ONDORIO NAGUSIAK

Honako hauek dira beraz, azterketa honek eskaini dituen ondorio garrantzitsuenak:

-Euskal Herriko biztanleen euskararen ezagupen orokorra handitzen ari da. Gero eta gutxiago dira (eta izango dira) batere euskararik ulertzen ez duten euskal herritarrak.

-Ikasleak euskaltegietan «ikasten hastetik», «ikastez bukatzera» pasako dira. Hemendik aurrera euskaltegiak, euskara ikasten «hasteko» baino, ikastetxeetan nahiz euskaltegietan hasitako euskararen ikasketa-prozesua «amaitzeko» bide izango dira.

-Helduen eskalduntzea gertaera sozio-kultural zabal eta garrantzitsua

da. 20-40 urte bitarteko biztanleen %30, noizbait matrikulatuta egon da euskaltegi edo barnetegiren batean.

-Euskaltegiek gizartearen oniritzia dute: Euskal Herriko 20-39 urte bitarteko erdaldunek oso iritzi ona agertu dute euskaltegien inguruan: 0tik 10era, batez beste 7.7ko puntuaketa eman diete.

-Motibazio afektibo-ideologikoei bultzatu dituzte herritarrak euskaltegietan matrikulatzera.

-Denbora da euskaltegietan matrikulatzea ala ikasi gehien baldintzatzen duen aldagaia.

-Euskaltegietan matrikulatzeko interesa oso zabala da erdaldunen artean: 20-39 urte bitarteko erdaldunen %32k, euskaltegietan matrikulatzeko oso interesatuta edo nahikoa interesatuta dagoela adierazi du.

-Gutxi dira euskaltegietan lortutako mailari eusten diotenak: Euskaltegietatik pasatako erdaldun gehienek (hamarretik zazpi inguru) galdu egin dute euskaltegietan lortutako euskara-maila ikasketa-prozesua eteteen.

-Ikaslegoa gaztea da eta behe urratsetan biltzen da.

-Euskaltegien ezagupena zabala da gizartearen.

-Jatorriz erdaldunak eta euskararen aldekoak dira. Gaur egun euskaraz ongi mintzatzen iristen ez diren 20-39 urte bitarteko erdaldunen gehien-go osoa famili erdaldunetan jaioa da (%90).

-Erdaldun hauen ingurua oso erdalduna da: 20-40 urte bitarteko erdaldunek euskararekiko ukipen gutxi dute.

-Behar eta planteamendu berrien beharra. Euskararen ezagupen, motibapen nahiz erabilpen mailan 20-39 urte bitarteko erdaldunek, beraiengan eta inguruan ezagutu eta somatu dituzten aldaketek, hizkuntz egoera berrietara eraman gaituzte azken urteotan.

-Helduen eskalduntzeak etorkizun oparoa du, baina bere praktika optimizatu egin behar du.

«Aipatu dugun bezala, irakaskuntza-sistematik kanpo euskararekiko ukipena handiagotzen duten esparruak haurrak, familia eta lana direnez, zaharrenek ukipen-handiagoa dute euskararekin gazteenek baino»